

## **Liburutegiak mailegu kopurua bikoiztu ondoren, eskaintza areagotuko dute**

**Antolaketa eredia aldatuz, laster DVDz gain beste dokumentu batzuk eskaintzeko asmoa dute.**

DANEL LAUZIRIKA

Udal liburutegiko arduradunek jakinarazi dutenez, 2008an zerbitzua egonkortu eta aurreko urteko datuak hobetu zituzten. Horrela, 2007arekin alderatuz erabiltzaile kopurua ia bikoiztu egin zen iaz. Mailegatutako dokumentuen kopurua, berriz, bikoiztu egin zen.

Arduradunek jakinarazi dutenez, zerbitzu gehiago eskaintzeko asmoz liburutegiaren antolaketa eredia aldatu dute. Orain arte espazio faltagatik DVDak kaxetan gorde izan ditugu. Eredu honek dokumentuak trabak ematen zizkien erabiltzaileei. Orain aldizkarien gunean DVDak biltzen dituzten apalak jarri ditugu, espazio gehiago lortuz.

DVDak generoetan sailkatuko dituzte laster. Ondoren beste dokumentu batzuk eskaintzeko asmoa dute liburutegiko arduradunek. Hainbat liburutegitan diskoak eta CD Romak maileguan ematen dituzte. Orain arte espazio faltagatik ezinezkoa izan zaigu zerbitzu hori eskaintzea. Orain euskal musikaren atal bat sortzea eta CD batzuk izatea da asmoa.

### **Iazko datuak, positiboak**

Liburutegiko iazko datuak positiboak izan direla adierazi dute arduradunek. Izan ere, 2008. urtean aurreko urtean baino 282 erabiltzaile berri gehiago izan ziren, ia bikoitza. Guztira 3.790 irakurle daude altan emanda Udal liburutegian.

Iazko uztailean erabiltzaile kopurua nabarmen igo zen. Igoera horretan udako liburutegiak izan zuen garrantzia nabarmendu dute arduradunek, kalean egin zelako. Aurten ere berori errepikatzeko asmoa dute, baina oraindik ez dute data zehatza finkatu. Hala ere, udako liburutegia uztailean izango dela adierazi dute.

2008an liburutegiko maileguan utzitako dokumentuen kopurua bikoiztu egin zen, 2007an mailegatutako 5.584 dokumentuetatik 11.164 dokumentuetara igaroz. Kasu horretan DVDen zerbitzua eskaintzeak garrantzia handia duela nabarmendu dute arduradunek.

Horrez gain, 2008an erreserben kopurua bikoiztu eta katalogoaren kontsultek gorantz egin zuten. Gutxi batzuei emandako azalpenekin izandako igoera ikusita, argi dago ikastaroak antolatuz gero kontsultak bikoiztu eta hirukoiztu egingo liratekeela. Internetetik kontsultak, maileguak, eskaerak, erreserbak edota luzapenak egin ahal izatea guztiontzat mesedegarria izango litzateke.

2008ko bukaeran aurreko urtean baino 2.284 dokumentu gehiago zeuden liburutegian, hilabetero 2007an baino 190 dokumentu gehiago eskuratuz. datua